

ETORKIZUNA ERAIKIZ think tank

KULTURA POLITIKO BERRIA

9. BILERAREN MEMORIA

2021/03/17

Edukia

1. Programa 3
2. Taldekideak 3
3. Sarrera eta tailerraren aurkezpena 4
4. Taldeek landutako edukien aurkezpena 4
5. Talde-dinamika 6
6. Gobernantza kolaboratiboaren narratibei buruzko sarrera 11
7. Saioaren amaiera 12
8. Eranskinak 14
   a. Saioan zehar erabilitako aurkezpena 14
   b. Gobernantza kolaboratiboaren narratibei buruzko sarrerarako diapositibak.... 27
   c. 9. lan-dokumentua 29
   d. 10. Lan dokumentua..... 33
   e. Saioko programa..... 40

1. Programa
2. Taldekideak
3. Sarrera eta tailerraren aurkezpena
4. Taldeek landutako edukien aurkezpena
5. Talde-dinamika
6. Gobernantza kolaboratiboaren narratibei buruzko sarrera
7. Saioaren amaiera
8. Eranskinak

a. Saioan zehar erabilitako aurkezpena

b. Gobernantza kolaboratiboaren narratibei buruzko sarrerarako diapositibak

C. 9. lan-dokumentua

e. Saioko programa

ETORKIZUNA ERAIKIZ think tank

KULTURA POLITIKO BERRIARI BURUZKO DELIBERAZIO-GUNEA

ZOOM, 2021eko martxoak 17, 17h-19h

1. Programa

Gaia	Arduraduna
Lan-saioari sarrera eta prozesuari buruzko hausnarketa	Miren Larrea, Orkestra
Taldeak landutako edukien aurkezpena	Andoni Eizagirre, Mondragon Unibertsitatea
Talde-dinamika	Andoni Eizagirre, Mondragon Unibertsitatea
Gobernantza kolaboratiboaren narratibei buruzko sarrera	Itziar Eizagirre, Gipuzkoako Foru Aldundia

2. Taldekideak

Parte-hartzaileak:

1. Sebastian Zurutuza. **Gipuzkoako Foru Aldundia.**
2. Ander Arzelus. **Gipuzkoako Foru Aldundia.**
3. Xabier Barandiaran. **Gipuzkoako Foru Aldundia.**
4. Ion Muñoa. **Gipuzkoako Foru Aldundia.**
5. Goizeder Manotas. **Gipuzkoako Foru Aldundia.**
6. Eider Mendoza. **Gipuzkoako Foru Aldundia.**
7. Itziar Eizagirre. **Gipuzkoako Foru Aldundia.**
8. Mikel Pagola. **Gipuzkoako Foru Aldundia.**
9. Miren Larrea. **Orkestra.**
10. Asier Lakidain. **Sinnergiak**
11. Naiara Goia. **Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategia.**
12. Andoni Eizagirre. **Mondragon Unibertsitatea**.

13. Mikel Irizar. **Eusko Ikaskuntza**.
14. Ander Errasti. **Institut d'Estudis de l'Autogovern.**
15. Fernando Tapia. **EHU**
16. Eva Sánchez. **Orkestra.**

3. Sarrera eta tailerraren aurkezpena

Orkestrako ikerlariak hasiera eman dio lan-saioari parte-hartzaileei ongietorria emanez, eta gogora ekarri du, azken saioan, ezagutzarekin harremanetan jartzeko modu desberdin bat adostu zutela elkarrekin: ezagutza aditu gisa taldearen beraren ezagutza hartzea.

Horrekin batera, ongietorria eman die bi parte-hartzaile berriri (ECO11 eta GFA8), eta GFA8 gonbidatu du bere burua aurkez dezan.

GFA8k parte-hartzaileak agurtu ditu. Partaidetza Zuzendaria da. Esan duenez, ez da erraza izango GFA2k utzitako hutsunea betetzea, eta, aldi berean, interesgarria izango da prozesu honetan parte hartzea.

4. Taldeek landutako edukien aurkezpena

ECO5ek hartu du hitza, eta besteei azaldu die, gaurkoan, Kultura Politiko Berrirako Think Tank-aren kontzeptualizazio teorikoko taldeak dinamizatuko duela saioa. *"Guztion artean kultura politiko berri bat indartzen jarraitzea da helburu nagusia. Eta hauek dira helburu zehatzak: batetik, Etorkizuna Eraikiz-ek kultura politiko berri bat justifikatzen duela gogoraraztea eta, bestetik, lan-talde bakoitzaren helburu orokorrak eta komunak gogora ekartzea. Ez dugu ahaztu behar, azpi-taldeetan lan egin arren, helburu komun bat dugula: kultura politiko berri bat indartzea".*

Azaldu du gaurko dinamikan azalpen orokor bat emango dela eta bi ariketa egingo direla. "*Lehenengo ariketa 1 zenbakiko lan-dokumentuan oinarritzen da. Demokrazia liberalaren krisia da ideia orokorra, zeinak bi sintoma baititu: herritarrek politikarekiko duten atxikimendu falta eta erakundeek egungo erronkei erantzuteko dituzten arazo geroz eta handiagoak. Etorkizuna Eraikiz krisi horri aurre egiteko planteamendu bat da".*

"Horren azpian inplizituki dagoen suposizioa da kultura politiko demokratikoa sistema demokratiko egonkor baten oinarria dela. Begien bistakoa iruditu arren, askotan, ahaztu egiten zaigu kultura politiko demokratiko baten ideia. Hala, ideia horren

arabera, erakunde politikoek babestu beharreko arau eta balioei buruzko adostasuna behar dute gizarteek, eta, aldi berean, adostutako arau eta balio horiek erakunde politikoen prozesuak legitimatzen dituzte". Gaineratu duenez, *"sistema demokratikoek modu jasangarrian funtziona dezaten, beharrezkoa da printzipio demokratikoekin bat datorren kultura politikoa eraikitzea".*



"Diagnostikoa egitean, hainbat ideia agertu ziren: desafekzio politikoa eta egitura publikoek globalizazioaren erronkei aurre egiteko duten ezintasuna". Horri guztiari beste dimentsio osagarri batzuk gaineratu behar zaizkio: A) Gizarte gero eta indibidualistagoa. B) Herritarrek bizitza politikotik kanpo sentitzeko duten joera. Herritarrek ez dute ezagutzen mundu politikoa eta bere errealitatea. C) Eragile eta aparatu politikoen arteko lehia babes eta legitimitate soziala lortzeko. Herritarrak urrun sentitzen dira borroka

horretatik edo ez dira eragile aktibo borroka horretan. D) Sistema ekonomikoaren zati handi baten kontrol falta eta globalizazioak krisian duen eragina. E) Desadostasun handiak erakunde, herritar eta eragile politikoen artean elkarrenganako ekintza eta itxaropenei buruz.

"Errotiko" kezkak mahai gainean jartzea helburu duten lau galdera aipatu ditu, berriz ere: 1) Eutsi al diezaiekegu gizarte-ongizaterako sortu ditugun politika publikoei? 2) Erakunde publikoek eskumen nahikoak dituzte herritarren askatasunerako eta berdintasunerako beharrezkoak diren baldintzak bermatzeko? 3) Sistema politikoek gaitasuna dute ordezkaritza politikoa eta herritarren legitimitatea antolatzeko? 4) Nola eragiten du kontsumo-gizartearen kulturak demokraziaren kalitatean?

"Galdera horiek justifikatzen dute Think Tank-a eratzea, egoera hori eraldatzea ahalbidetuko duten deliberazio-espazioak sortzeko, hausnarketa horiek Gipuzkoako Foru Aldundiko politiketan eragiteko eta Etorkizuna Eraikiz-en ekosistemak kultura politikoari eragiteko".

Gogora ekarri duenez, parte-hartzaileek hainbat iruzkin egin zituzten hasierako planteamendu horri buruz −2 zenbakiko dokumentuan daude jasota−, eta honela jarraitu du: *"Laburpen hori egitea zen gure helburua, eta, ondoren, bi ariketa egingo ditugu. Lehenengoa kultura politikoari buruzkoa da: galdera batzuk egingo dizkizuegu, kultura politikoarekin zer ulertzen dugun jakiteko helburuarekin".*

5. Talde-dinamika

ECO5ek eskatu du parte-hartzaile bakoitzak bakarrik erantzun diezaiela galderei, ekarpen oso garrantzitsuak baitira liburuaren kapitulu honetarako: "Kultura politiko berri baten beharrari buruzko hurbilketa pluralista: lan taldearen ikuspegiak eta proposamenak". Ondoren, talde bakoitzeko idazkariak osoko bilerara ekarriko ditu partaideen erantzunak.

Ondoren, lehen ariketako galderak ekarri ditu gogora:

1) Definitu kultura politiko berria. Eman hiru ezaugarri, eta arrazoitu bakoitza.
2) Identifikatu gobernantza kolaboratiboaren eta lan egiteko beste modu kolektibo baten arteko desberdintasunak.

3) Kultura politiko berri bat nahi dugula diogunean, zergatik da gobernantza kolaboratiboa aukera egoki bat?

Azalpenarekin amaitzeko, helburua partaide guztien hausnarketak biltzea dela adierazi du.

ECO5ek 15 minutuko tartea ireki du bakarkako lanerako. Denbora hori igaro ondoren, lan-aretotan zatitu da taldea, azpi-taldeen arabera. Beste 15 minuturen ondoren, osoko bilerara itzuli dira guztiak.

ECO6k herritarren parte-hartzeari eta gizarte antolatuari buruzko taldean sortutako hausnarketak azaldu ditu. *"Gure taldean, ikuspegi desberdinetatik heldu diogu lehenengo galderari. Kultura politiko berria ikuspegi konplexu batetik ulertzen dugu, eta, gure ustez, hauek dira bere ezaugarriak: ezagutza berria sortzeko eta ezagutza hori komunitatean mantentzeko beharra. Konplexutasun horretara egokitutako balio berriak, eta, horretarako, entzuteko gaitasun erreala lantzeko beharra. Eta, bukatzeko, harremanetarako sistema berriak sortu eta barneratzeko beharra. Gure ustez, kultura politiko berria Euskal Herriaren zerbitzura dagoen tresna eraginkor eta kolaboratiboa da, eta deliberazio demokratikoa ahalbidetzen du".*

Bigarren galderari buruz, honakoa esan du: "*Gobernantza kolaboratiboa gobernuen eta gizarte zibilaren arteko harreman-eredu berrietan oinarritzen dela ulertzen badugu, entzuteko, hausnartzeko, adosteko eta erabakitzeko espazioak behar dira. Beharrezkoa da etengabeko ikasketa irekia ahalbidetzen duen eredu bat izatea, eta parte hartzen duten eragileen arteko harremanak horizontalak izatea. Agenda publikoa gizartearena da, eta gizartearen lehentasunak batera zehaztu behar dira. Gobernantza kolaboratiboko eredu batean, berdintasun egoeran hartu behar dira erabakiak. Hala, parte hartzen duten eragile guztiek sinesten dute eredu horretan".*

Hirugarren galderari honela erantzun diote: "*[Gobernantza kolaboratiboa da kultura politiko berri baterako aukerarik onena] gainerakoak motz geratzen direlako egungo erronken tamaina kontuan hartuta. Harremanetarako modu berri bat bezala ulertzen dute, balio eta jokabide berriak bereganatzea bermatzen duena. Erabilgarria iruditzen zaigu harremana berreskuratzeko eta eskatutako konfiantza berreskuratzeko".*

Ondoren, ECO12k administrazioaren eraldaketari buruzko taldean jasotako erantzunak bildu ditu:

Lehengo galderari buruz, honakoa esan du: *"Hainbat gauza aipatu ditugu; besteak beste, hauek: batetik, gobernantza kolaboratiboak aukera ematen du politika hobeak eta aberatsagoak egiteko; bestetik, administrazioak eta herritarrek konfiantzazko espazioak behar dituzte; izan ere, atxikimendurik ezak murriztu egiten ditu sistemak bere planteamenduetan asmatzeko dituen aukerak, eta lankidetza bultzatzeko beharra du. Halaber, balio demokratikoen beharra azpimarratu da, sortzen ari diren erronka berriei aurre egiteko. Amaitzeko, herritarrek parte hartzeko beharra azpimarratu dugu, eta foru-aldundiak eskura dituen baliabideak modu arduratsu eta eraginkorrean erabiltzeko duen erantzukizuna".*

Gobernantza kolaboratiboaren eta beste lankidetza mota batzuen arteko desberdintasunei dagokienez, "*desberdintasun nagusia da, elkarlanean aritzeko aukeraz gainera, arazoak eta ekintzak modu partekatuan zehaztu daitezkeela eta erabakiak errealitate bakoitzera egokitzeko aukera ematen duela. Gobernantza kolaboratiboa haratagoko maila batean dago, koordinazio hutsetik sorkuntza bateratuan oinarritutako estrategia bateratu batera pasaz. Horrez gainera, partaide guztiak maila berean kokatzen dira, eta hori ere garrantzitsua da.*

Azkenik, kultura politiko berri bat sortzeko gobernantza kolaboratiboak duen egokitasunari buruz, *"uste dugu baietz, egokia dela, aniztasuna eta ezagutza ematen dituelako eta atxikimendua sortzen duelako partaidetza sustatuz. Aurrean ditugun erronka berriei aurre egiteko eta lehengo kultura politika gainditzeko modua da".*

Bukatzeko, Orkestrako ikerlariak hartu du hitza, eta azterketa metodologikoaz arduratzen den taldearen emaitzak azaldu ditu. Taldeak lehenengo bi galderei erantzun diela adierazi du.

Kultura politiko berriaren definizioari dagokionez, joera berriei buruz eta proiektuan ikusi nahiko lituzketen gauzei buruz hitz egin dute. Zikloetara pasatzeko eta lan-sareetan lan egiteko beharra aipatu du. Halaber, ikuspegi holistiko bat hartzeari buruz eta ezagutza zientifiko-teknikoarekiko mendekotasuna murrizteari buruz hitz egin du, politikarien eta herritarren arteko kohesioari buruz, eta kultura politiko berriak bide eta tresna berriak ekartzeko beharrari buruz. Kultura politiko berri bat sortzeko moduari buruz eta kultura hori sortzeko espazioei buruz ere hausnartu dute. *"Talde berriek*

sortzen dute, talde berriak sortzen goazen neurrian. Erronka berriei erantzutean sortuko da kultura politiko berria". Halaber, aipatu du lehengo kultura politikoek lotura estua zutela ideologia zehatz batzuekin. *"Kultura politiko berria, ostera, irekiagoa da".* Gaineratu du taldean aipatu dutela kultura politika berria ezin dela definitu lagun-etsai dikotomiaren bitartez. *"Beharrezkoa da eraginkorrak ez diren idealismoak bazterrean uztea, nahiz eta ez den ukatu behar gatazkak egongo direla".*

Bigarren galderaren kasuan, adierazi du taldeak ez zeukala argi zein diren lan kolektiborako beste moduak. Hortaz, gobernantza kolaboratiboari buruz hausnartzera mugatu dira, eta ondorio hau atera dute: *"botere-guneak askotarikoak izango dira, inplikatutako eragileek fase guztietan hartu behar dute parte, beharrezkoa da sare publiko-pribatuaren ikuspegia eta partaidetza sustatu behar da".*



EC05ek bigarren ariketa azaldu du. Dinamika bera jarraitu da, eta galdera hauek egin dira:

1) Zertan, nola eta zergatik egingo diozue talde-ekarpena kultura politiko berriari buruzko ekimenari?
2) Zer espero duzue kultura politiko berriari buruz teorizatzeko lan-taldetik?

Aurreko ariketako eskema bera jarraituz, parte-hartzaileek banaka egin dute lan, eta, ondoren, taldeka. Ondoren, osoko taldera pasatu dira, eta idazkariek dinamikaren emaitzak azaldu dituzte.

EC06k honela laburbildu du lehenengo galderaren erantzuna: *"gizartearen behar errealekin konektatuko dugu, eta behar horiek ekintzekin gauzatuko ditugu. Halaber, ikuspegi berriak sortuko ditugu, eta esperimentazio-gune berriak ezagutza berriarekin konektatutako ditugu".*

Bigarren galderari dagokionez, erantzun du esparru orokorraren ardatza gobernantza kolaboratiboa dela, eta esperimentaziotik ateratako ikasketak ardatz horrekin lotuta egongo direla. *"Gure proiektuan gobernantza kolaboratiboaren diskurtsoa kokatzea espero dugu. Gobernantza kolaboratiboaren definizio ulergarria espero dugu; izan ere, herritar aktiboak bultzatu behar ditugu, gobernantza kolaboratiboari buruz hitz egiten dugunean zertaz ari garen ulertzen dutenak".* Amaitzeko, konplexutasuna ere lantzeko beharra aipatu du. Taldean lantzen ari diren bi proiektuetan agertzen den kontzeptu bat da. *"Bi kontzeptu horiek lantzea nahiko genuke [gobernantza kolaboratiboa eta konplexutasuna]. Ausartak izatea gustatuko litzaiguke, eta gobernantza hori martxan jartzeko, beharrezkoa da oinarri teoriko bat izatea".*

ECO12k administrazioari buruzko taldearen emaitzak aipatu ditu: *"Gipuzkoako Foru Aldundian zeharkako lan egiteko modu bat eskain dezakegu; kultura, lan egiteko moduak eta balioak aldatzen lagunduko duena. Hori izango litzateke kultura politiko berriari egingo geniokeen ekarpena. Kultura politiko berria Aldundiaren egunerokotasunean aplikatuko dugu. Horretarako, erraztearen kontzeptua barneratuko dugu. Aldiz, espero dugu teorizatzen jarraituko dela; izan ere, ez ginateke gai izango krisi hori ikusteko, teorizazio horregatik ez balitz".*

Orkestrako ikerlariak hitza hartu du talde metodologikoak galderei emandako erantzunak azaltzeko. Lehenengoari dagokionez, hau esan du: "*Gure ekarpena metodologikoa izango da. "Deliberazio-prozesuan parte hartzen dugun guztiok praktika-komunitate gisa irudikatzea proposatuko dugu, eta izan gaitezkeenari eta izateko moduari buruz hausnartuko dugu. Gramatika bat eskaini nahi diegu botere-harremanei, teoria kasu zehatzetan aplikatu ahal izateko. Metodologiaren bitartez, mugimendua eman behar diogu teorizatzen ari zaretenari".*

Bigarren galderari erantzunez, berriz, hau esan du: "*Jakintzat ditugun kontzeptu eta esparruak zalantzan jartzen laguntzea espero dugu. Linealtasunetik haratago egiten dugu lan, elkarrekin eta ezagutza eta ekintza bateratuz. Azken finean, prozesuan asko erabiltzen ditugun kontzeptuak finkatzen laguntzea espero dugu*".

6. Gobernantza kolaboratiboaren narratibei buruzko sarrera

EC05ek eskerrak eman ditu, eta GFA7 aurkeztu du: *"Gobernantza-ereduak azalduko dizkigu".*

GFA7k honela ekin die azalpenei: *"Testuinguruari dagokionez, uste dut garrantzitsua dela jakitea XIX. eta XX. mendeen erdian zeuden desberdintasunetatik eratorritako gatazkek denbora-tarte luze bateko gatazka, arazo sozial eta agenda politikoak baldintzatu dituztela.*

"XX. mendearen bigarren erdian, "new deal" filosofia defendatu zen, ongizatearen ideiarekin lotuta. Kontrapisu-sistema bat sortu zen merkatu libreko ekonomiaren eta ongizate-sistemaren artean. 70eko hamarkadan, bi presio elkartu ziren, kapitalismo finantzarioak eta energia-krisiak eragindakoak".

"Gobernuei presio egiten zitzaien merkatuetan esku hartzeko gaitasuna aldatzeko, gaur egungo krisia sortu zen, bi ardatz hauetan oinarrituta: 1) Zalantzan jartzen da gobernuek prezioetan eragiteko duten gaitasuna. Ideia horrek talka egiten du estatuaren legitimitate demokratikoaren flotazio-marran. 2) Merkatuen legitimitatea aldarrikatzen da. Orduan, beste gobernu-formula batzuk behar dituen krisi bat hasten da, oraindik ere konpondu ez dena".

"Aldaketaz eta konplexutasunaz ari garenean, zertaz ari gara eta zergatik? Globalitateak garrantzia kendu dio distantziaren ideiari eta aldaketak eragin ditu lanean. Lehen, egitura sozial egonkorrak zeuden, eta, orain, Baumann-en likidotasuna nagusitu da. Desberdintasun, gatazka, beldur, ziurgabetasun eta antzeko egoera asko dakartza aktualitateak pertsona bakar baten bizitzan. Egoera horren aurrean, behar homogeneoei erantzutera ohituta zeuden politika publikoak gaitasunik gabe geratzen dira arazo horiek konpontzeko. Ikuspegi homogeneizatzailea gainditu behar da. Gainera, Espainiaren kasuan, politika publikoak desagertzen hasi direnean batu gara korronte horietara".

"Beraz, erronka horien aurrean politika publikoak nola bideratu pentsatu behar da. 80ko hamarkadan, munduko bankuaren txosten batzuetan, gobernantza aipatzen da gobernu tradizionalari kontrajarrita. Azken 30 urteetan, berriz, gobernantzarekin lotutako erreferentzia anitz ditugu".

Gobernantzaren definizio batzuk eman ditu, eta honela jarraitu du: *"Askotariko definizio eta interpretazio horien arrakastak, neurri batean, oztopatu egin du gobernantzaren ideia ulertzea. Sistematizazio arazo bat dago. Lanarekin, ekonomiarekin, familiarekin, teknologiarekin, arazo sozialen konplexutasunarekin lotutako elementu guztiek osatzen dute gobernantzaren eredu kanonikoa. Terminoaren arazoa da polisemikoa dela, lausoa, eta etengabe ari dela eboluzionatzen. Horrek Joan Prats aipatzera garamatza, zeinak gainezkatze kontzeptual gisa definitzen baitu fenomeno hori. Ikuspegi eta tradizio bakoitzak bere diskurtsoaren mesederako erabili izan du kontzeptua, eta horrek dakar nahasmena".* Ugaritasun babilonikoaren kontzeptua ere aipatu du: kontsultatutakoaren arabera, gauza bat edo bestea ulertzen da gobernantza gisa.

"Interesgarriena da definizio operatibo batean sinesten dugula. Nire ustez, interesgarriagoa da irizpide beretik abiatu, eta, ondoren, adjektiboak jartzea, hasieratik definitu beharrean. Gobernantza teoria gisa finkatuta ez dagoenez, kontzeptuak orraztu, mugatu egin behar dira. Garrantzitsua da hori prozesua argitzeko. Deliberaziozko demokrazia gauzatzea, bakoitzaren jakintza bateratuz eta gure adimen kolektiboa anplifikatuz. Guztiok ulertuko dugun zerbait esateko aukera izan behar dugu. Definizio erabilgarri bat sortu behar dugu, gure testuingurua ulertuko duena eta kultura politiko berri bat sortzeko gai izango dena".

ECO5ek gobernatza kolaboratiboaren ikusmoldeetan egon daitezkeen hiru narratibak azaldu ditu: neoliberal, la institucional eta interpretativa. Eta, amaitzeko, ondorioztatu ikuspegi interpretatiboaren barruan egon daitekeela deliberazio-taldearen narratiba.

7. Saioaren amaiera

Orkestrako ikerlariak azaldu duenez, gaur landutako hiru ikuspegiekin osatuko da liburuko kapituluetako bat. Beste kapitulu bat, berriz, GFA7k azaldutako hiru narratibekin osatuko da.

Ondoren, GFA8 partaide berriari eman dio hitza, bere burua aurkez dezan.

Gero, gogora ekarri du talde bakoitzaren egitekoak talde barruan kudeatzen direla, eta saioa amaitutzat eman du, datorren hilabetera arte.

8. Eranskinak

a. Saioan zehar erabilitako aurkezpena

Kultura politiko berria

2021-03-17

Saioaren helburuak

- Helburu nagusia: kultura politiko berria indartzearen beharra ulertzea.

- Helburu zehatzak:

  - Etorkizuna Eraikizek kultura politiko berri bat indartzea nola justifikatzen duen gogora ekartzea;

  - Lan-talde bakoitzak zein helburu nagusi eta amankomuni erantzun behar dion gogora ekartzea.

Saioaren egitura

1. Azalpen orokorra. 15 minutu.

2. Lehen ariketa. 50 minutu.

3. Bigarren ariketa. 50 minutu.

4. Itxiera.

Gure aurkezpenerako iturria

"DEMOKRAZIA LIBERALEN KRISIA ETA KULTURA POLITIKO BERRI BATEN BEHARRA: HAUSNARKETARAKO ETA GIPUZKOAN EKITEKO OINARRIEN THINK TANKA"

Kultura politiko berriari buruzko deliberazio prozesua: lanerako 1. dokumentua

Abiapuntuko ideia orokorra

- Demokrazia liberalaren krisia.

- Bi fenomeno ageriko:

  - herritarrek eragile, erakunde eta sistema politikoarekiko duten desatxikimendua;

  - ordezkaritzarako eta politika publikoen kudeaketarako egitura politikoen ahultasuna.

- Etorkizuna Eraikizek kultura politiko berri bat indartzea planteatzen du, krisi horri aurre egiteko estrategiaren parte gisa.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Suposizio inplizitua

- Kultura politiko demokratikoa sistema demokratiko egonkor baten funtsezko oinarria da:

- “Gizarteek adostasuna behar dute, beren erakunde politikoak babestuko dituzten eta horien prozesuak legitimatuko dituzten balioen eta arauen inguruan”.

- “Sistema demokratikoak modu iraunkorrean funtziona dezan, beharrezkoa da printzipio demokratikoekin bat datorren eredu kultural bat eraikitzea”.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Kultura politikoari buruzko diagnostikoa

1. Desatxikimendu politikoa.

2. Egitura publikoen ezintasuna, globalizazioaren testuinguruan planteatzen diren erronka ekonomiko, sozial eta politikoei erantzuteko.

Diagnostikorako elementu osagarriak (I)

1. “Gero eta indibidualistagoa den gizarte batean bizi gara, non bizitza komunitarioarekin eta bizitza publikoarekin zerikusia duten alderdiek garrantzia galtzen baitute”.

2. “Herritarren artean gero eta joera handiagoa dago eragile politikoetatik eta bizitza politikotik kanpo sentitzeko, eta gutxi ezagutzen dira errealitate politikoa, komunitate politikoa, iritzi publikoaren espazioa eta sistema politiko eta instituzionala osatzen duten elementuak”.

3. “Eragile eta aparatu politikoak gizartearen atxikimendua eta legitimitatea lortzeko lehiatzen dira, eta haien arteko harremana kontsumitu daitezkeen lerroburuak lortzeko norgehiagokan islatzen da”.

Diagnostikorako elementu osagarriak (eta II)

4. “Herritarra, hein handi batean, oilarren borroka horretatik kanpo dagoen eragile gisa agertzen zaigu”.

5. “Sistema ekonomikoaren zati handi baten kontrol demokratikorik ezak eta globalizazioaren testuinguruan sortzen ari diren errealitate berriei aurre egiteko instituzionalizaziorik ezak eragina dute gure erakunde sistemaren ordezkaritza krisian”.

6. “Desadostasun handia dago eragile politikoen, erakundeen eta herritarren artean, ekintzei dagokienez eta elkarrenganako itxaropenei dagokienez”.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Agenda politiko berriaren kezkak

1. “Sortu ditugun gizarte ongizaterako politika publikoei eutsi al diezaiekegu?”

2. “Erakunde publikoek ba al dute behar besteko esku-hartze gaitasunik herritarren askatasun eta berdintasun baldintzak bermatzeko?”

3. “Gaur egungo sistema politikoek ba al dute gaitasunik herritarren legitimitate eta ordezkaritza politikoa antolatzeko?”

4. “Nola eragiten dio kontsumo gizarteen kulturak demokraziaren kalitateari?”

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Think Tankaren helburuak

1. “Egoera hori eraldatzea ahalbidetuko duten deliberazio guneak sortzea”.

2. “Deliberazio talde honen bidez GFAren politiken eraldaketan eragitea”.

3. “Deliberazio talde honen bidez Etorkizuna Eraikizen oinarri diren ekosistemetako kultura politikoaren eraldaketan eragitea”.

Lan-taldeko ikuspegiak

“KULTURA POLITIKO BERRI BATEN BEHARRARI BURUZKO HURBILKETA PLURALISTA: LANTALDEAREN IKUSPEGIAK ETA PROPOSAMENAK”

Kultura politiko berriari buruzko eztabaida prozesua: Lanerako 2. dokumentua

Krisiaren izaera konplexua

1. “Konponbide linealak, partzialak edo erantzunetara mugatutakoak bilatzea gainditzeko premia”.
2. Erronkak:

   - “Tresna berriak diseinatzea, gizarte eta kultura aldaketak denbora errealean ulertzeko”.

   - “Gaitasun eta espazio berriak prestatzea aldaketak eragile ezberdinen artean batera interpretatzeko”.

   - “Administrazio publikoei beren ekimenak diru zorro gisa kudeatzen uztea, ez proiektu isolatu gisa”.

   - “Lankidetza publiko-pribatuak finantzatzeko tresna berriak ezartzea”.

   - “Etorkizuneko krisiei aurrea hartzeko gure tresnak hobetzea, pentsamendu estrategiko gehiago garatzea”.

Aktibo formalak eta ukiezinak

1. Pertsona eta pertsonaren balioak, eta erantzukizuna;
2. Izaera komunitarioaren indartzea;
3. Epe luzeko jomuga bateratua izaten ahalegintzea;
4. “Lankidetza publiko-sozialari ematea formulazio moderno eta homologatua, eta tresna juridikoak nahiz ekonomikoak finkatzea lankidetza hori gero eta sendoagoa eta handiagoa izan dadin”;
5. Lankidetzazko gobernantza sistematikoki eraikitzea eta sustatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN Es futuro

Gobernu ona eta herritarren parte hartzea (I)

- "Herritarrek GFAri dagozkion gobernu eta administrazio funtzioei buruzko erabakiak hartzean parte hartze aktiboa izateko gaitasuna izatea".

- Erronkak:

  - "Administrazioaren kontzeptualizazio berria ahalbidetzea, eraikuntza kolektiboko prozesu horren garapena erraztuko duen espazio interaktibo eta integratzaile bat sortuz".

  - "Herritarrekin batera sortzeko, harremanak izateko eta lan egiteko prozesu berriak bideratzeko baldintzak sortzea, administrazioaren bezero soil gisa ulertutako herritar eredua gainditz".

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Gobernu ona eta herritarren parte hartzea (eta II)

- "Gobernu ona, eztabaida prozesuaren erdigune gisa".

- Erronkak:

  - "Herritarrak erakartzea, elkarlaneko gobernantzarekin bat egin dezaten";

  - "Herritarren konfiantza gureganatzea";

  - "Gardentasun, gertutasun, austeritate eta zintzotasun balioak izatea";

  - "Administrazio elektronikoa bultzatzea, eta administrazioaren barruko harremanak eraldatzea".

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Kultura demokratikoa argitzen

- “Kultura demokratikoaren indartzea izan beharko luke erronka nagusia”.
- “Kultura demokratikoaz ari garenean, zertaz ari garen finkatzea”;
- “Kultura demokratikoaz ari garenean, abstraktuan ari gara, edo konkretuki balio, jokabide eta jarrera batzuez ari gara”;
- “Galdera horiek guztiak kontuan izanda, estrategia, bide eta ekintza konkretuak definitzea”.

Saioaren helburuak

- Helburu nagusia: kultura politiko berria indartzearen beharra ulertzea.
- Helburu zehatzak:
  - Etorkizuna Eraikizek kultura politiko berri bat indartzea nola justifikatzen duen gogora ekartzea;
  - Lan-talde bakoitzak zein helburu nagusi eta amankomuni erantzun behar dion gogora ekartzea.

Saioaren egitura

1. Azalpen orokorra.
2. Lehen ariketa.
3. Bigarren ariketa.
4. Itxiera.

Lehen ariketa

- Kultura politiko berriari buruzko ariketa.
- Kasu honetan, marko teorikoa eta kontzeptuala landuko dituen lan-taldeak hainbat galdera planteatuko ditu.
- Helburu nagusia da kultura politiko berriaren inguruan gure artean egon daitezkeen ikuspegi ezberdinak ulertzea eta argitzea.

Lehen ariketaren prozedura

1. Galdera-sorta banaka erantzun. 15 minutu.
2. Galde-sorta taldean eztabaidatu. 15 minutu.
3. Plenarioa. 15 minutu.

Lehen ariketaren galderak

1. Kultura politiko berria. Hiru ezaugarri + Zergatiak

2. Lankidetzazko gobernantza eta beste elkarlan motak. Ze ezberdintasun daude?

3. Kultura politiko berria nahi bada, zergatik da lankidetzazko gobernantza aukera egokia?

Bigarren ariketa

- Kultura politiko berria aberasteko ariketa.

- Kasu honetan, lan-talde bakoitzaren ardura izango da bere lan-arlotik pentsatuz kultura politiko berriari zertan, nola eta zergatik ekarpena egiten dion hausnarketa egitea.

- Helburu operatiboa da lan-talde bakoitza jabetzea bere lanarekin –kapituluaren idazketarekin- helburu amankomun bati ekarpena ere egin behar diola.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Bigarren ariketaren prozedura

1. Galdera-sorta banaka erantzun. 10 minutu.
2. Galde-sorta taldean eztabaidatu. 15 minutu.
3. Plenarioa. 20 minutu.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Bigarren ariketaren galderak

- Nire lan-taldetik kultura politiko berriari zertan, nola eta zergatik egiten diot ekarpena?

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Kultura politiko berria

2021-03-17

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

b. Gobernantza kolaboratiboaren narratibei buruzko sarrerarako diapositibak



NARRATIBA NEOLIBERALA

- Gobernantzari buruzko lehenbiziko narratiba. '80-ERRESUMA BATUA/AEB
- Lema: «gobernu gutxiago, gobernantza gehiago». Erakunde egonkorrak eta sektore publikoaren eraginkortasuna, merkatuak hobeto funtziona dezan. **Estatua, gutxieneko mailan.**
- **Administrazio eta kudeaketa** ikuspegia: deserregulazioa, pribatizazioa, zerbitzuen kontratazioa, kudeaketa teknika berriak, langile murrizketak, aurrekontu murrizketa.
- Estatuak autoritatea eta gaitasuna **galtzea.**
- **Hautaketa arrazionalaren teorian** oinarritzen da. Erabakien onura eta erabilgarritasuna maximizatzea.
- Hori guztia subjektuen balioen, sinesmenen edo nahien gainetik.
- **Erabilgarritasuna kategoria unibertsal** gisa maximizatzea, kulturen eta pertsonen gainetik.

ERAKUNDE NARRATIBA



- Gobernantza instituzionalaren teoria modernoaren jatorriak ulertzeko, II. Mundu Gerraren ondorengo testuinguruan kokatu behar da. **Plangintza soziopolitikorako teoria arauemaileak.** Baina eraginkortasun mugatukoak izan ziren.
- Politika publikoak egiteko eta ezartzeko oinarrizko paradigma baten inguruan egituratutako teoria, zeinari gaur egun elementu berritzaileak eta ezinbestekoak gehitzen joan baitzaizkio pixkanaka: ***botton-up*** ikuspegia, **sareen** garrantzia eta **kontrol hierarkikoaren, merkatuaren printzipioen eta gizarte autoerregulazioaren arteko konbinazioa**.
- Eragile garrantzitsua bada ere, **azterketa gunea ez da Estatua, erakunde esparrua baizik**, beste eragile batzuekiko harremana arautzen duten arauen multzoa den aldetik. Onartzen da **Estatua, berez, ez dela gai gizarte osoa zuzentzeko**, baizik eta beste eragile batzuekin negoziatu behar duela eta eraginkorrak izateko aliantzak eratu behar dituela.
- Instituzionalismoak honako diagnostiko hau du abiapuntu: errealitate globalizatuak eta politika neoliberalen gorakadak ez dute merkatua hobetu; aitzitik, Estatua ahuldu dute, eta erabakiak hartzeko sistema konplexuak sortu dituzte, eta ondorioz, Estatuaren agintea ahuldu dute. Ildo horretan sortzen dira sareak, prozesu politiko eta ekonomiko berrienen ondorio zuzen gisa sortzen ari diren antolaketa modu gisa.
- Mayntz, 2001: Gobernantza, «gobernu estilo berriak, kontrol hierarkikoaren ereduaz bestelakoa eta ezaugarri hauek dituena: lankidetza handiagoa eta Estatuaren eta estatuz kanpoko eragileen arteko interakzioa, publikoaren eta pribatuaren arteko erabaki sare mistoen barruan».

INTERPRETAZIO NARRATIBA



- Aurreko bi narratibek arazo batzuk dituzte gobernantza demokraziari buruzko eztabaidaren mende jartzeko garaian. Izaera positibista duenez, errealitate soziopolitikoa **itxitzat eta lehenetsitzat** aurkezten digute, erabaki arrazionalei edo sareko erakundeei dagokienez. Hainbat muga ezartzen zaizkio gizarteak bere burua gobernatzeko duen gaitasunari, printzipio demokratiko batzuei jarraiki.
- Gizarteari erabaki garrantzitsuak hartzeko modua antolatzeko aukera ematen dion gobernantza sistema dialektikoki eraikitzen dute sistema horretako eragileek.
- Gobernantzaren interpretazio paradigmaren oinarria da gobernantza prozesuak aplikatzen diren testuinguruen **berezitasun historiko, soziokultural, politiko eta ekonomikoen** mende daudela.
- Onartzen du errealitate soziopolitikoa **elkarrizketaren** bidez **era intersubjektiboan** eraikitzen dela, eta **elkarrizketa horren ezaugarriak** dira, hain zuzen ere, gobernantza sistema jakin baten ezaugarriak zehazten dituztenak.
- Beraz, gobernantzaz hitz egiteak ez du esan nahi Estatuaren ahulezia geure gain hartu behar dugunik, baizik eta, alderantziz, **partaidetza formula** berrien bidez **arlo publikoa indartu daitekeela** jo dezakegula.
- Ikuspegi **ireki eta esploratzaile** horrek –orokortzeak baztertzen ditu– aukera ematen digu termino horrek demokraziari buruzko eztabaidarekin duen harremanean duen potentziala aitortzeko. Ez die atea ixten aurrez finkatutako eredu instituzional eta demokratikoei, aurre egin beharreko **erronken aurrean ikuspegi berriak irekiz**.

c. 9. lan-dokumentua

THINK TANK


Kultura Politiko Berriaren inguruko deliberazio prozesua: 9. lan dokumentua

DELIBERAZIO TALDEARI ENTZUTEKO ARIKETA

(2021eko otsailaren 17a)

Lan dokumentu honek bi eratako edukiak jasotzen ditu. Alde batetik, Kultura Politiko Berri baten garapenerako deliberazio taldeak definituriko agendari erantzuten dio, oraingoan gizarteari entzuteko sistema eraginkorrak garatzeko erronka landuz. Erronka hori ez zen modu kontzeptualean landu, taldeak entzute ariketa bat eginez baizik. Ariketa horretarako erabili zen markoa 1. irudian jasotakoa da.

1. irudia. Entzute ariketaren pausoak



Entzute prozesu horren bidez, deliberazio taldeak bere ibilbidean landutako hainbat oinarri metodologiko berrikusi zituen, aurrera begirako zenbait irizpide markatuz. Ondorengo lerroetan taldearen hausnarketa eta erabakiak jasotzen dira, horiek osatzen baitute taldeak batera sortutako prozesuko jakintza edo izaera metodologikoko jakintza.

Entzute ariketa taldekideek -ebaluazio orrietan edo saioaren ondorengo elkarrizketetan- prozesuari buruz esandakotik abiatu zen. Ondorengo ardatzak jaso ziren:


- Taldeak bere prozesua gidatzeko zailtasunak
  - “puntua adituek jartzen digute, guk jartzen saiatu beharko genuke”
- Taldekideen artean gaiak lantzeko denbora falta
  - “Dinamikarako denbora gutxi gelditu dela”
  - “Ondo sentitu naiz, bigarren zatian, hala ere, presaka ibili gara denbora faltagatik”
- Gainontzeko taldekideen eskutik ikasteko zailtasunak
  - “Gaur hitz egindakoaren aldetik, lantalde ezberdinak zertan ari garen partekatzeko aukera izatea hurrengo saioetan”
  - “Proiektu ezberdinen arteko komunikazioa eta elkar ezagutza hobeto landu beharko litzateke, edo horretarako mekanismoak/kanalak pentsatu”
- Hausnarketa eraldaketa prozesuan kokatzeko zailtasunak
  - “dinamikan deskolokatuta geunden”
  - “batzuk prozesuan oso sartuta zaudete, baina beste batzuk bileratik bilerara ez dugu prozesua berdin jarraitzen”
  - “galderak konplexuegiak ziren, ez ligukete hainbesteko ahaleginik eskatu behar”
  - “nik benetan nahi nuena adituek esandakoaren inguruan eztabaidatzen jarraitzea zen”

Hausnarketan laguntzeko, partaideetako batek think tankeko talde honetan berak egindako prozesuaren narratiba partekatu zuen, bertan sortutako zalantza eta deserosotasunei izena jarriz. Partaide horrek, besteak beste, ondorengoak aipatu zituen: kaos sentsazioa, deserosotasuna, ikasteko beharra eta prozesuak uste baino denbora gehiago eskatzen duela. Prozesuaren ekarpen moduan azaldu zituen teoria eraikitzeko erabiltzen ari den modua; taldeko eraldaketa eta norbere eraldaketa txertatzeko modua; hausnarketaz gain, emozioak eta subjektibitatea ere prozesuren zerbitzura jartzea. Azkenik, ekintzarekin lotura ulertzerakoan posizio desberdinak daudela ere aipatu zen.

Prozesuaren narratiba horren osagarri, gertatzen ari zenaren inguruko lan hipotesi bat partekatu zen taldearekin. Horren baitan, landu den ekintza ikerketa metodologiak hiru jakintza mota uztartzen ditu, gaiaren inguruko jakintza aditua, partaideen esperientzian oinarrituriko jakintza eta prozesuko jakintza edo jakintza metodologikoa. Partekatu zen hipotesiaren baitan, taldearen prozesuan jakintza mota horiek gorde beharreko oreka galdu egin da: jakintza adituari toki gehiago eskaini zaio, esperientzian oinarrituriko jakintzarentzat denbora gutxiago utziz eta prozesuko jakintza deliberazio gunetik ia desagertuz (ikus 2. irudia). Modu esplizituan jakintza metodologikoa

eztabaidatu gabe, zaila gertatzen da jakintza aditua eta esperientzialaren arteko lotura ondo ulertzea.

1. irudia. Jakintza mota desberdinen arteko oreka ekintza ikerketa prozesuan



Lan hipotesi hau mahai gainean zela, beste ideia bat eztabaidatu zen. Prozesuaren eboluzio honen atzetik jakintza mota desberdinen arteko hierarkizazioa dagoela. Gizartean balorazio gehien jasotzen duena jakintza aditua da, eta horren atzetik gelditzen dira esperientzian oinarriturikoa eta prozesuko jakintza. Ideia hau laburbiltzeko, prozesua aztertu duen atzerriko ikerlari baten ekarpena erabili zen. Hark aipatu baitzuen, Aristoteles gaur biziko balitz ez litzatekeela unibertsitateko katedraduna izango (jakintza aditua), lanbide heziketa dualeko irakaslea baizik (jakintza teorikoa ekintzan txertatuta lantzen duena). Bere helburua, hau esaterakoan, esperientzian oinarritutako eta prozesuko jakintza balioestea zen.

Marko horien baitan egin zen berriro taldearen entzute ariketa bat, non hala nahi izan zuten partaideek beren ikuspegia partekatu zuten. Taldearen jardunaren inguruko ekarpen batzuk azaltzen dira ondoren:

- “Praktikaren balidazio teorikoa bilatu behar dugu”
- “Adituez gain arituak balioan jartzeak pozten nau”
- “Kaosetik urruntzeko gerturatze progresibo batean dihardugu”
- “Harritzen naute teoria gutxiesten duten interbentzioek”
- “Momentu bakoitzean behar dugun jakintza desberdina izan daiteke, momentuz momentu ikusi beharko dugu zein jakintza behar dugun”
- “Taldearen birsortze momentu bat da”

- “Subjektibitatea eta emozioak lantzea garrantzitsua izango da”

Hausnarketa horren ondorioz, taldeak denboraldi batean jakintza aditua kanpotik ekarri beharrean, taldekideen eskutik lantzea erabaki zuen, jakintza teorikoa eta esperientzia uztartuz. Prozesu jakintza partekatzeko denbora gehiago erabiltzea ere erabaki zen. Horrek jakintza mota desberdinen uztartzearekin esperimentatzen lagunduko du.

d. 10. Lan dokumentua

THINK TANK

Kultura politiko berriaren inguruko deliberazio prozesua: 10. lan dokumentua

KULTURA POLITIKO BERRIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA

(2021eko martxoaren 31)

Sarrera

2021eko otsailaren 17an, lan metodologia eztabaidatu ondoren, maiatzera bitartean hausnarketa taldekideek ekarritako edukien gainean egitea adostu zen. Saio horietako lehena martxoaren 17an egin zen eta bertan kontzeptualizazio lanetan ari diren kideek erraztu zuten saioa.

Dinamikari begira, taldearen proposamena lehen lan dokumentuan azaldutako kultura politiko berriaren inguruko hausnarketara itzultzea izan zen, prozesuaren oinarrietatik abiatuz kontzeptualizazioan aurrerapauso bat emateko. Horretarako, lau gai landu ziren:

a) Kultura politiko berriaren ezaugarriak
b) Lankidetzazko gobernantza eta beste lankidetza motak
c) Zergatik lankidetzazko gobernantza?
d) Deliberazio prozesuan diharduten lantaldeen arteko loturak

Ondorengo ataletan taldeek gai horien inguruan esandakoak jasotzen dira.

Kultura politiko berriaren ezaugarriak

Ezaugarriak zerrendatu aurretik, taldekide batek argitu zuen kultura politiko berrian bi dimentsio bereizten direla. Batetik, gure GIZARTEAN aldatzen/indartzen doan kultura politikoa, zeinak ezaugarri ezberdinak dituen aurreko kultura politikoarekin alderatuz, eta nagusiki indibidualismoaren eta kontsumo logikan oinarritzen dena. Bestetik, kultura politiko ASPIRAZIONALA, aldatzen ikusten duen mundu eta gizartearen aurrean, politika egiteko modu egokitu bat planteatzen duena, nolabait gizarte “berri” horri erantzuteko.

Kultura politiko berriaren ezaugarriak hauek direla esan zuen taldeak:

a) Eduki politiko berriak.
b) Erlazionatzeko modu berriak.
c) Botere-harreman berriak.
d) **Ezagutza berria garatzeko baldintzak**. Erronken eta aldaketen ulermenean sakondu behar dugu, agenda publikoa ondo interpretatzeko. Egungo testuinguruak eduki berriak jarri dizkigu mahai gainean. Herri batek jakintza

behar du. Ezagutza maila partekatuko duen gizarte bat behar dugu eta oinarrizko ezagutza depositua komunitatean egon behar da.

e) **Aldaketak barneratzeko eta balioak egokitzeko aukera**. Kohesio sistema komun bat eraiki behar da, balio berriak bereganatuko dituen gizarte bat behar dugu, konplexutasunean ondo egokituko dena.

f) Gizartean ze behar dauden gizartean entzuteko -benetako entzute bat egiteko aukera-.

g) Herritarren eta politikaren arteko lotura berriak.

h) Herritarren parte hartzea bideratzeko bide eta tresna berriak.

i) **Egiteko modu berriak, harremantzeko sistema efektiboak sortuz** (erakunde – herritar, erakundeen arteko, …). Arduradun politikoen eta herritarren arteko harremana sendotzeko aukerak sortu behar ditu eta erakunde publikoen barruan ere aldaketak barneratu.

j) **Lan-sareetan oinarritutakoa** izatea, hierarkietatik "zikloen" moduko kontzeptuetara pasaz.

k) **Tresna izatea Euskal Herriaren zerbitzura** – gurean bereziki inportantea gizarte antolatua da lankidetzazko gobernantzan. Herri biziraupenerako behar dugu lankidetzazko gobernantza, komunitategintzatik identitate, euskara, nortasun propioarekin irauteko.

l) **Eraginkorra** izatea – dauzkagun indarrak bilduz.

m) **Lankidetzazkoa** izatea – indar sozial eta instituzionalak helburu komunen zerbitzura jarriz.

n) **Demokratikoa** – demokrazian sakontzeko bide berriak eman behar ditu. Deliberazio demokratikoa behar da eragile ezberdinak prozesuan sinesteko, konfrontazioa utzita.

o) **Ikuspegi sistemikoa**. Kultura politiko berriak gaur egun aurrean ditugun erronka handiei eman behar zaizkien erantzunen baitan garatu behar duelako.

p) Politikaren **legitimazioari buruz** uneoro pentsatzen duena.

q) **Ezagutza zientifiko-teknikoaren inguruko dependentzia hain handia ez duena.**

r) **Berrikuntza eta kohesioa** ekartzea herritar eta politikaren inplikazioari dagokionean.

s) **Erronka ekonomiko, politiko, sozialen baitan** garatuko dena haiei erantzunez.

t) **Giza talde berrietan** sortzen dena, haiek sortzen baitituzte kultura politiko berriak.

u) Aurrekoak baino irekiagoa.

v) Maximalismo gabekoa.

w) Lagun-etsai dikotomia gabekoa.

x) Idealismo ez eraginkorretatik aldentzen dena.

y) Herritar kritikoak.

z) Agenda politiko berriarekin lotura, erronka berriak, emergenteak jasotzeko

aa) **Herritarren beharrei erantzuteko** prestutasuna baliabideak erantzukizunez erabiliz eta emaitzetara zuzendutako kudeaketa ahalbidetuz.

bb) **Kudeaketa ona** herritarrek gizartearen arazoak propio sentituz eta erantzunetan inplikatuz.

Lankidetzazko gobernantza eta beste lankidetza motak

Bestalde, lankidetzazko gobernantzaren eta beste lankidetza moten arteko desberdintasunen inguruan galdeturik, honela erantzun zuen taldeak:

a) Lankidetzazko gobernantzaren eta beste modu batzuen arteko desberdintasunak:
   a. **Lankidetzazko gobernantza**k ondorengoa eskatzen du: etengabeko ikaskuntzako dinamika irekia eta aktiboa izatea (jakintza sortzea ahalbidetzen du); eragileen arteko harreman horizontalak, ez hierarkikoak garatzea; agenda publikoa/politikoa gizartearena da eta gobernuaren eta eragile sarearen lankidetzaren bitartez ezartzen dira agendako lehentasunak; gobernantza partekatua izatea. Deliberazioak parekoa izan behar du interes talde guztientzat (parekotasun horrek bermatzen duelako jendeak benetan sinestea deliberazio horretan).
   b. **Beste elkarlan motak** eman daitezke adostutako hierarkia batekin; edo elkarlana ahalbidetu daiteke baina agendak gobernuarena soilik izaten jarraitzen duen bitartean, eta berak ezartzen ditu lehentasunak. Edo beste elkarlan mota batek ez du jakintza sortzea helburuen artean zertan izan.

b) Lankidetzazko gobernantzak aktore pribatu eta zibilei erabaki politikoen erantzukizuna luzatzen die, politika publikoen prozesuetan sartuz. Ez da ordezkaritza demokratikoaren hobekuntza bat, beste lankidetza mota batzuk, hala izan daitezke.
c) “Lankidetzazko gobernantza” kontzeptuaren bi hitzek “tranpa” txiki bat planteatzen dute. Lankidetzan egiten den prozesu orotan gobernantza bat egon arren de facto, ez baitu zertan horrek lankidetzazko gobernantza izan behar. Eta hori horrela izanik, mota ezberdinetako eragileak elkartzen direnean, askotxotan, “lankidetzazko gobernantza” kontzeptua erabiltzen dela esango nuke, “elkarlana” edo “lankidetza” erabili beharrean.
d) “Lankidetzazko gobernantzan”, elkarlana ez ezik beste hainbat elementu partekatzen dira. Hasteko eta behin, prozesu logikan egiteko moduez ari gara, zeinetan helburuak, ardurak, erabakiak, finantziazioak, etab. partekatzen diren, garatzen doan konfiantzaren lokailuaren bitartez. Baina inolaz ere, lankidetzazko gobernantza ezin daiteke oinarritu, elkarrekin eraikitzeko beharrezkoa diren elementu horiek guztiak partekatzen ez direnean, baizik eta horietako batzuk bakarrik partekatzen direnean.
e) Lankidetzazko gobernantza ez da soilik elkarrekin lan egitea, baizik eta elkarrekin arazoak eta egitasmoak definitzen dira, konpartitzen dira, erabakiak errealitate bakoitzera egokitzen dira eta arindu. Estrategia partekatzea eskatzen du, ez koordinazioa. Ez da kolaborazioa, ko-sortzea da.

Zergatik lankidetzazko gobernantza?

Kultura politiko berria garatu nahi bada, lankidetzazko gobernantza zergatik den egokia galdetzean, taldearen erantzunak hauek izan ziren:

a) Besteak motz gelditzen direlako jartzen ditugun helburuetarako.
b) Harremantzeko modu berri honek ahalbidetuko digulako, ezagutza, balio eta jarrera berriak barneratzea, eta jokabidea – egiteko modu berriak geureganatzea ere.
c) Elkarren arteko harremana berreskuratzeko bide bat izan beharko litzatekeelako (galdutako konfiantza hori berreskuratzeko).
d) Epe motzean, gizarte anitzen konplexutasunari aurre egiteko eta emaitza politiko partekatuak lortzeko bide sendoa delako. Ez da perfektua eta epe ertainean izan dezakeen bilakaera zalantzazkoa dirudi, baina gaur egungo gizarteetako kohesioa sendotzeko oinarri aproposak eraikitzeko balio dezake.
e) Aldi berean bermatu dezakeelako, kultura politiko berri aspirazionalaren eta gizartean nagusitzen ari den kultura politiko berriaren arteko lotura oinarri demokratikoak sendotuz egitea, eta modu eraginkor eta legitimoan egitea. Alegia, oinarri demokratiko sendoak dituelako planteamendutik bertatik (zintzoa bada), eta gainera, prozesuan errealitate konplexuari erantzuteko eta gizartearen izaera politiko-publikoa indartzeko bidea delako.
f) Definitu ditugun ezaugarriak lankidetzazko gobernantzak betetzen dituelako eta ez beste aukera batek.
g) Aniztasunak ezagutza eta jakintza berriak inkorporatzen dituelako eta parte-hartzea sustatuz egitasmoekiko atxikimendua sortzen delako.
h) Kultura politiko berria vs kultura zaharra, harresiek eta konfrontazioak historikoki nora garamatzaten argi dugulako eta hori gainditu nahi dugulako.

Aurrekoen inguruko arriskua, kezka, kontraesana: lankidetza horri behar den denbora eskaini behar zaio, gaur egun ohituta gauden ereduan denbora preziatua da, nahiz eta gero bukaerako emaitzak balio izan (berme demokratiko gehiago).

Deliberazio prozesuan diharduten lantaldeen arteko loturak

Amaitzeko, lantalde bakoitzari ondorengoa galdetu zitzaion: **zertan, nola eta zergatik** egingo diozue zuen lantaldetik **ekarpena** kultura politiko berriari buruzko egitasmoari? Hau erantzuterakoan, lantalde bakoitzak bere ekarpena zein izango den eta teorizazioan diharduen taldearengandik zer espero duen aipatu zuen.

Kontzeptualizazioan diharduen taldea

- Gainontzeko taldeei egingo dien ekarpena: marko teoriko kontzeptuala ezartzea, eta horrekin oinarriak jarri talde osoaren lanari koherentzia eta sendotasuna emateko.
- Gainontzeko taldeei hau eskatzen die: gure lanketa teorikorako, kontzeptua ulertzeko eta erabiltzeko modu ezberdinak jasotzea, eta horiekin dialogoan eta kontrastean, gurea (eta beraz talde osoarena) osatzea.

Herritarren eta gizarte antolatuaren inplikazioa lantzen duen taldea

- Gainontzeko taldeei egingo dien ekarpena:
  - 2 esperimentu edo proiektu ezberdin:
    i. Herritarren inplikazioarekin zuzenean zerikusia duena.
    ii. Gizarte-eragile / Erakunde-arteko gobernantza eredu berriak: Badalab laborategia sortzeko.
  - Jakintza esperientziala esplizitatuko dugu, eta honen atzetik dagoen markoa azaleratu, gauzak egiteko moduan dauden logikak deskubritzea da asmoa nolabait. Ikaskuntzarako esperientziak izan behar dira guk hemen jorratuko ditugun proiektuak.

Hauen bidezko ekarpena:

Herritarra agenda publikora eramateko demokrazia deliberatiboko prozesua bultzatu nahi dugu, partaidetza prozesuen enfoke berriak diseinatu eta martxan jarri, hain zuzen ere agenda publikoan herritarren inplikazioa eta parte-hartzea sustatzeko eta areagotzeko. Eta hori tresna eta bide/enfoke berriak erabiliz. Bestalde, erakunde publikoen eta gizarte eragileen arteko gobernantza eredu berriak esploratu eta haiekin esperimentatu nahi dugu, parte-hartzea eta adostasuna bultzatuz. Entzuteko, hausnarketarako eta esperimentaziorako espazioak ere bultzatzen ditugu eta ezagutza berriarekin konektatu nahi dugu, garapen komunitarioko tresna eta enfoke berriak inkorporatuz. Azkenik, gizartean dauden premia errealekin konektatuko dugu, ekintza zehatzekin eta gure gizartean dauden proiektuekin (hau ez dadin txosten batean edo marko teorikon bakarrik gelditu).

- Zer espero du talde honek kontzeptualizazioan ari den taldearengandik?
  - Marko orokorra, bertan kontzeptu garrantzitsua lankidetzazko gobernantza da.
  - Hori praktikara eramanda esperimentaziotik aterako ditugun ikasketak jasotzea.
  - Lokalizatu gobernantzaren diskurtsoa gure errealitatera – gure lankidetza publiko-sozialean badaudelako esperientziak.
  - Ulerkorra den lankidetzazko gobernantzaren definizio bat – herritarrengana heldu nahi badugu, eta herritargo aktibo bat sustatzeko.
  - Konplexutasunaren lanketa. Erronka konplexuen ideian zentratu nahi dugu abiapuntuan, bere zentzu eta inplikazioetan, eta nola horrek gobernantza ereduak birpentsatzeko premia azaleratzen duen. Beraz, konplexutasunaren kontzeptualizazio edo oinarri teoriko batzuk beharko ditugu. Oinarri horrek lagunduko digu baita ere prozesuan kontutan hartu beharreko elementuak eta galderak planteatzen.

- Gobernantza partekatuta praktikara eramateko ausartak izan (mugaraino eraman) nahi dugu – eta horretarako babes teorikoa inportantea da.

Lanketa metodologikoan ari den taldea

- Gainontzeko taldeei egingo dien ekarpena:
  - Dimentsio metodologikoa landuko du kultura politiko berria lantzeko orduan, besteak beste deliberazio talde hau praktika komunitate moduan nola garatu daitekeen landuko du eta horrek taldearen egonkortasunari eta eraginkortasunari eragin dakioke eraldaketa lantzeko orduan.
  - Ekarpen metodologikoa. Ezagutzaren sorreraren eta boterearen arteko harremanari erreparatzea. Horrek mahai gainean jartzen du boterea egikaritzeko modu berri honek, lankidetzazko gobernantzak, berarekin dakarrela jakintza sortzea eta partekatzea prozesu sozial moduan.
  - Gramatika bat eskaini dezakegu. Nola? Teorizazioak isla izateko kasuak aztertzea interesgarria izango litzateke, Espainian eta, batez ere, Europako beste toki batzuetan.
  - Egitura nahiko finkatuta dago: bi talde ekintzara bideratuta daude, eta teorizaziotik hitz gakoak emango dizkigute eta guk MUGIMENDUA EMAN BEHAR DIEGU.
  - Nazioarteko arrakasta historikoak ekarri, datu base bat sortuz eta haietatik ikasteko aukerak sortuz.
- Zer espero du talde honek kontzeptualizazioan ari den taldearengandik?
  - Teorizazioan eta kontzeptualizazioan emantzat ditugun kontzeptu eta markoak kuestionatzen laguntzea da, gaur egun ditugun ikuspegiak gainditu eta taldean, haratago joan ahal izateko.
  - Taldeak erabiliko duen teorizazioa, kontzeptualizazioa eginkorra izatea, hau da, eraldaketa prozesuan bertan sortzea jakintza, modu linealean aurrena pentsatu eta gero inplementatzen saiatu gabe.
  - Esperientziatik, ezagutza partekatua sortzea. Horrek lankidetzazko ikaskuntza ahalbidetzen du. Hori zein baldintzatan da posible?
  - Sarri erabiltzen ditugun kontzeptuak finkatzen laguntzea eta hori egiten duten heinean, partekatzen dugun proiektua zein den argitzea. Komunitate bat bagara, batzen gaituen enpresa komuna zein den ulertzea eta gure hausnarketa zein helbururi begira dagoen finkatzen laguntzea.

Administrazioaren eraldaketan ari den taldea

- Gainontzeko taldeei egingo dien ekarpena:
  - Tresna bat inposatu ordez, ezagutarazi, egokitu eta modu mailakatuan ezarriko dugu eta honek lan egiteko modu berrietan sakontzeko balioko digu. Transbertsalki, hobeto lan egiten ikasiko dugu.

- Etxearen kultura, egiteko moduak, baloreak aldatzen lagunduko dugun heinean lankidetzazko gobernantza gorpuzten eta indartzen lagunduko dugu, egunerokotasunean.
- Inertziatik atera eta deskonfiantza dagoen eremu batean beste begirada bat jartzen saiatuko gara. Nola? Jerarkiak dakarren harrokeriatik haratago hau dialogo aktibo bihurtzen ari gara. Zergatik? Prozesu hauek eraginkorrago izateko, erakargarri egin nahi ditugu, Aldundiko bezeroak guregana etortzeko.

- Zer espero du talde honek kontzeptualizazioan ari den taldearengandik?
  - Transformaziorako beharraren inguruan gogoeta egin eta arrazoitu. Konturatu dira behar hori dagoela, guk praktikara pasa ahal izateko.
  - Teorizazioa aplikatzen lagundu. Teorizatu gabe ez ginen jabetuko transformazioaren beharraz ere.
  - Lankidetzazko gobernantzan klabea da fazilitazioaren rola. Hau prozesuan nola aplikatu behar dugun ulertzen lagundu

e. Saioko programa

THINK TANK

KULTURA POLITIKO BERRIAREN INGURUKO DELIBERAZIORAKO GUNEA

BILERA BIRTUALA, 2021eko martxoak 17

SAIOAN LANDUKO DEN ERRONKA

2021eko otsailaren 17an taldeak lan metodologia eztabaidatu eta maiatzera bitartean hausnarketa taldekideek ekarritako edukien gainean egitea adostu zuen, partaideek "barne aditu" papera jokatuz.

Ondorioz, martxoko saioan paper hori teorizazioan diharduen taldeak jokatuko du (Xabier Barandiaran, Andoni Eizagirre, Itziar Eizagirre eta Ion Muñoa). Taldeak lankidetzazko gobernantzaren inguruan lantzen ari direna partekatuko du, gainontzeko kideen ekarpenak jasoz. Helburua bikoitza da. Alde batetik, lantzen ari diren kontzeptualizazioak ekintzara bideratuta dauden lantaldeen jardunean laguntzea. Bestetik, gainontzeko taldekideen jardunetik abiatuz, kontzeptualizazioa aberastea.

SAIORAKO AGENDA

- Sarrera
- Taldeak landutako edukien aurkezpena
- Talde dinamika